



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/07/06

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu Aldundiak bosgarren edukinontzia jarteko diru-laguntza gehiago emon behar dauenik

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordeak ez dau onartu gaur Bizkaiko talde Popularrak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena, Foru Aldundiak, etxeko hondakinen zati organikoa gaika batzeko edukinontzia jarteko emoten dituan diru-laguntzak handitzea eskatzen dauena. Ekimena ez da onartu EAJ-PNV eta PSE-EE taldeetako ordezkariak ezezko botoa emon dabelako. Talde horreek zuzenketa-eskea aurkeztu dabe –proposamena aurkeztu dauen taldeak onartu ez dauena zuzenketa-eskea, hain zuzen be– Foru Aldundiak aukera hori 2017ko aurrekontuei begira “aztertu daian”.

Foru Aldundiak “1.090.000 euro” bideratu ditu aurton etxeetan sortzen diran hondakinen zati organikoaren konpostajea errazten dauen sistema jarten laguntzeko. Kopuru horretatik “580.000 euro” edukinontzi marroiak, auto-konpostagailuak eta boltsak erostera bideratu dira, eta beste “510.000 euro” herritarrak sentsibilizetako kanpainak martxan jartera. Eduardo Andrés PP taldeak batzordean dauen batzordekideak salatu dauenez, laguntza horreek “beti behar baino lehenago amaitzen dira” 2012an eskaintzen hasi ziranetik. 2016ko “lehenengo hiruhilekoan” agortu zirala esan dau.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, beste ezer baino lehen laguntza eredua aztertzearen aldeko apustua egin dabe. Laguntza horreek araupetzen dituan foru dekretuak ezarten dauenez, laguntzok iritsi ahala emoten dira. Hori dala eta, Zuriñe Argatxa jeltzaleak, beste ezer baino lehen “laguntza sistema egokiena dan ala ez” ikustearen alde agertu da, eta horren ostean, partidea handitu behar dan ala ez, hori bai, sistemaren eraginkortasuna kontuan izanda. “Gaur egungo egoera ekonomikoa eta diru-bilketaren jatsiera dirala eta”, beharrezkoa da une honetan zuhurtziaz jokatzea, baliabideak “mugatuta” dagozalako, gehitu dau Ignacio Jerónimo sozialistak, bere ezezkoa azaltzeko orduan.

EZEZKOA TALDE MISTOAK ESKATU DITUAN AZTERLAN BIEI

Batzorde berean Talde mistoaren arauz besteko proposamen bi eztabaidau dira, baina bat bera be ez da onartu. Proposamen horreetako baten bitartez, Bizkaiko udalen eta Aldundiaren esku dagozan aisialdi-guneetan “parke bio-osasungarri” gehiago jartea sustetako estrategia onena zein dan ikusteko azterlana egitea eskatzen zan. Bestean, barriz, Bizkaiko errepideetan anfibioentzako pasabideak jarteko beharra aztertu daiala eskatzen jakon Foru Aldundiari. Arturo Aldecoak aurkeztu dituan proposamen biek EH



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bilduren aldeko botoa baino ez dabe jaso eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek ezezkoa emon deusie. Podemos Bizkaia abstenidu egin da.

“Biztanleriaren zahartzea” dala eta makina “bio-osasungarri” gehiago jartea eta materialen kalidade-prezio erlazino onena bilatzea planteetan zan. Proposamen horrek “eskumenen esparruaren” gaineko zergaitiak izan ditu aurrean. Jeltzaleen eta sozialisten eretziz, ekimen hori Udalek hartu behar dituen erabagien barruan dago.

Aldundiaren esku dagozan errepideetan anfibioentzako pasabideak modu “sistematikoan” jartea “aztertzeke eta bultzatzeko” proposamenari jagokonez, Aldecoak 2006ko eta 2015eko azterlan bi aitatu ditu, eta baita dagoan “arazoa” onartzen daben adituen “artikuluak eta adierazpenak” be. Horreetan guztietan adierazoten danez, errepideak oso oztopo larriak dira espezie anfibioen bizi-iraupenerako. 2012ko datuek erakusten dabenez, “Espainian 9 milioi anfibio heldu errepideetan harrapauta hil ziran”, adierazo dau.

EH Bildu proposamenaren alde agertu da, baina harrapaketak gure lurraldearen bio-aniztasunaren galeraren zergaitietako bat baino ez dirala uste dau talde horrek. Arazo horri, errepideak, trenbideak edo parkeak garbitzeko “agrotokikoak erabiltea” gehitu behar jako, izan be, euri uraren bitartez, espezie horreek bizi diran pozuetera heltzen dira. Mikel Kormenzanak adierazo dauenez, “oso garrantzitsuak dira gure sistemaren kutsadurea neurtzeko”.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak bat etorri dira esatean Aldundiak “kontuan hartzen dituala daborduko” igarobide horreek errepide barriak egiteko orduan egiten diran ingurumen eragineko azterlanetan. Aitor Ibarra jeltzaleak adierazo dauenez, “neurri zuzentzaileak ezarri dira daborduko Zugaztietan, Gorbeian edo Aizkorrin, beste leku batzuen artean”. EAJ-PNV taldeko ordezkariaren eretziz, “ez da serioa” Aldecoak holango ekimenak aurkeztea “jasaten ari garen garai honetan, diru-bilketak behera egin dauela iragarri eta gero”.

PP taldean bere kidea izan zan Eduardo Andrések gehiago sakondu dau horretan, eta ekimena baztertzeko eskaria egin dau, erakundeari, batzarkideei eta herritarrei “errespetua” erakusteko. “Gainean daukagunagaz”, Talde Mistoko batzordekidea behin eta berrero “azterlan gehiago” eskatu eta eskatu dabilela kritikau dau, “gastua errazionalizetako unea dan honetan”.

ELENA UNZUETAREN AGERRALDIA

Beste alde batetik, saio berean, Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andreak, Busturialdeko Ur Partzuergoko (BUP) zuzendaritza batzordean Euskadiko Auzitegi Nagusiaren 606/2016 sententziaren aurrean Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak emon dauen botoaren esanahia azaldu dau, EH Bilduk eskatuta. Podemos Bizkaia taldeak eskatuta be joan da batzordera, Durangoko



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Garbigunearen gaur egungo egoera azaltzeko, igazko urriaren 16an hondakin arriskutsuen txabolea kiskaldu eban sutearen ostean.

Garbiker enpresea hondakin arriskutsuen bilketea Basauriko puntu garbira eroatera behartu eban azkenengo gertakari horri jagokonez, Unzuetak baieztu dauenez, arazoa “joan dan bagilaren 20an konpondu zan”, Durangoko instalazioetan material horretarako txoko barria egokitu zanean. Aldundiaren esku dagoan Garbiker enpresak sei hilebete baino gehiago behar izan ditu Durangon normaltasuna berreskuratzeko, batez be, Unzuetak adierazo dauenez, aseguru etxeak gertatutakoaren zergaitiak argitzeko egin behar izan ebazan ikerketak zirala eta. Zergaiti “posible” bi dagoz mahai gainean: kanpoko pertsona baten parte hartzea edo produkturen bat ugertu izana.

Beste alde batetik, Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko diputatu andreak, Aldundiak Busturialdeko Ur Partzuergoko zuzendaritza batzordean dauen ordezkariak Euskadiko Auzitegi Nagusiaren sententziaren kontrako interpelazinoako helegitea aurkeztearen kontrako botoa emon izanaren zergaitia azaldu dau. Epai horrek, aurretik eskualdeko uraren kudeaketagaz arduratzen zan Aquarbe enpresako beharginak subrogetan behartzen dau erakundea.

Unzuetak azaldu dauenez, bost arrazoi dagoz: helegite horrek aurrera egiteko “segurtasun juridiko faltea” daukala; kasu horren gaineko “zalantzak ez luzatzea”; gaia epaibideetan luzatzeak eta beharginei emon beharreko kalte-ordainak emoteak dakarren “kostu ekonomikoa ez handitzea”; eta Busturialdeko Ur Partzuergoak bertako beharginei jagokenez “behin betiko” antolakuntzearen aldeko apustua egitea.

EH Bildu taldeak bere aldetik, Mikel Kormenzana batzordekidearen bitartez, kritikau egin dau Aldundiaren jarrerea, bere txosten “teknikoen eta juridikoen” kontra agertu dalako, helegitearen aldeko apustua ez egitean. Epaitegi Gorenak eskaintzen dauen aukerea erabili barik erabagi hori onartzeak, administrazio publikoan ondorioak izango dituan dotrina judizialaren aldaketea eragingo dauela esan dau, subrogazioak beharginen traspasoa ezarten dauelako, erakundeek orain arte defendidu daben kontratazinoarako prozesu publikoa zabaldu behar barik.

Erabagi horrek eta beste batzuk dirala eta, koalizino abertzaleko batzordekideak uraren kudeaketaren “privatizazio prozesuaren” aldeko apustua ari dala egiten salatu dau. Aurreko urteetan horrek “3 milioi euroko galerak” itzi ditu, Partzuergoa giza baliabide propioakaz kudeatu danean “milioi bat euroko” irabaziak lortu diran bitartean. Bere berbetan, eredu barriak “argi eta garbi erakutsi dau”, lan baldintza “duinak” be barru hartzen dituan sistema publiko integralaren “eraginkortasuna”. “Zeintzuk dira Aldundiak defendidu dituan interesak?”, galdetu dau Kormenzanak, “Pokemon kasuaren” barruan justizia ikertzen ari dan enpresa egituraren barruan dagoan enpresaren “alde” egitean.

Erantzuteko unean, Unzuetak Aldundiaren ildo estrategikoak defendidu ditu. Ildo horreen barruan lurraldean Ur Partzuergo “bakarraren” alde egitea dago, “udalek eta eskualdeek holan gura badabe”, esan dau. Zehaztu dauenez, “zerbitzuak kanpora



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ateratea ez da pribatizatea”. Busturialdeko kudeaketea beti izan da “publikoa”. Esleipena izan dauen enpreseagaz izandako uraren kudeaketako ustezko “irregularitasunei” jagokenez, salaketa horreek epaitegietara erodateko konbidapena egin deutso Unzuetak EH Bildu taldeari.

Busturialdeko uraren kudeaketea dala eta Aldundiak koalizino abertzaleagaz dituan desadostasunak aspaldikoak dira. Unzuetak gogoratu dauenez, 2015eko zemendian, Foru Aldundia Busturialdeko eskualdean baliabide propioakaz egingo litzateken uraren kudeaketearen kontra agertu zan, zerbitzuaren “internalizazino osoan” oinarrituta egongo litzateken “txosten teknikorik, juridikorik eta ekonomikorik” bako ereduaren kontra, hain zuzen be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

06/07/2016

Juntas Generales rechaza que la Diputación tenga que aumentar las subvenciones para la instalación del quinto contenedor

La comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado hoy una proposición No de Norma del grupo juntero Popular, que instaba a que la Diputación aumentase las subvenciones destinadas a los municipios y mancomunidades de Bizkaia para la implantación del contenedor de recogida selectiva de la fracción orgánica del residuo doméstico. La iniciativa no ha salido adelante por el rechazo de los representantes de PNV y PSE-EE que habían presentado una enmienda – rechazada por el grupo proponente- para abrir la puerta a que la Institución foral “estudiase” inicialmente dicha posibilidad de cara a los Presupuestos de 2017.

La Diputación ha destinado este año “1.090.000 euros” en ayudas a la implantación del sistema que facilita el compostaje de los residuos orgánicos que se generan en los domicilios. De esta cantidad, “580.000 euros” han ido destinados a la adquisición de contenedores marrones, autocompostadoras y bolsas, y otros “510.000 euros” a la puesta en marcha de campañas de sensibilización ciudadanas. El apoderado del PP en la comisión, Eduardo Andrés, ha denunciado que estas ayudas “siempre se quedan cortas” desde que comenzaron a ofrecerse en 2012. Las de 2016 se agotaron “en el primer trimestre”, ha dicho.

Desde las filas de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han apostado por analizar, primero, el modelo de ayudas. El decreto foral que regula las mismas establece que se otorguen por orden de llegada, por lo que la jeltzale Zuriñe Argatxa ha abogado por ver inicialmente “si el sistema de ayudas es el más adecuado” y, en segundo lugar, si es necesario aumentar la partida teniendo en cuenta, eso sí, la eficacia del sistema. “La situación económica actual y la bajada de la recaudación” obliga a ser prudentes en estos momentos, ya que los recursos son “limitados”, ha añadido el socialista Ignacio Jerónimo, para argumentar su negativa.

NO A DOS ESTUDIOS SOLICITADOS POR EL GRUPO MIXTO

En la misma comisión se debatían dos proposiciones no de norma del grupo Mixto, que han sido rechazadas. Una pretendía impulsar la elaboración, por parte de la Diputación, de un estudio sobre la extensión de instalaciones de “parques biosaludables” en áreas recreativas forales y parques municipales. Y, otra, demandaba el estudio de la instalación de pasos para anfibios en las carreteras vizcaínas. Sendas propuestas de Arturo Aldecoa han recibido únicamente el apoyo de EH Bildu y el rechazo de PNV y PSE-EE. Podemos Bizkaia se ha abstenido.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La iniciativa que planteaba la extensión de máquinas “biosaludables” por motivo del “envejecimiento de la población” y de la búsqueda de la mejor relación calidad- precio en los materiales, ha chocado con el argumento del “ámbito competencial”. Para jeltzales y socialistas la iniciativa se adentra en las decisiones que deben tomar los propios ayuntamientos.

En relación a la propuesta para “estudiar y promover” de manera “sistemática” pasos para anfibios en las carreteras forales, Aldecoa se ha referido a dos estudios existentes, de los años 2006 y 2015, además de “artículos y declaraciones” de expertos, que reconocen la “problemática” existente, de que las carreteras representan serios obstáculos para la supervivencia de especies anfibias. Según datos de 2012, “en España, 9 millones de anfibios adultos fueron atropellados”, ha apuntado.

EH Bildu ha apoyado la propuesta, aunque creen que los atropellos solo son una de las causas de la pérdida de biodiversidad de nuestro territorio. Esta se une a la “utilización de agrotóxicos” en el desbroce de carreteras, vías férreas o parques, que llegan, a través de las aguas de lluvia, a las charcas donde habitan estas especies que son, a juicio de Mikel Kormenzana, “muy importantes para medir la contaminación de nuestro sistema”.

Tanto PNV y PSE-EE han coincidido en señalar que la Diputación “ya incluye” estos pasos en los estudios de impacto ambiental al acometer nuevos viales. El jeltzale Aitor Ibarra ha apuntado que se han establecido ya “medidas correctoras en La Arboleda, Gorbeia o Aizkorri, entre otras zonas”. El representante del PNV ha considerado “frívolo” que Aldecoa presente este tipo de iniciativas “en los tiempos que corren tras el anuncio de una bajada de la recaudación”.

El excompañero en el PP Eduardo Andrés ha ido más allá y ha pedido la retirada de la iniciativa “por respeto” a la institución, a junteros y junteras, y a la propia ciudadanía. “Con la que está cayendo”, ha criticado que el apoderado del grupo Mixto se dedique a pedir “más estudios” cuando “es tiempo de racionalizar el gasto”.

COMPARECENCIA DE ELENA UNZUETA

Por otra parte, en la misma sesión, la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha explicado el sentido del voto de la Diputación en el consejo del Consorcio de Aguas de Busturialdea ante la sentencia 606/2016 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, a petición de EH Bildu. Asimismo, acudía a la comisión a petición de Podemos Bizkaia, por la situación actual del Garbigune de Durango como consecuencia de un incendio que calcinó la caseta de residuos peligrosos el 16 de octubre del año pasado.

En relación a este último episodio que obligó a Garbiker a desviar la recogida de los residuos peligrosos al punto limpio de Basauri, Unzueta ha confirmado que dicho inconveniente “se subsanó el pasado 20 de junio” con la apertura de una nueva



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ubicación para este material en las instalaciones de Durango. La empresa foral Garbiker ha tardado más de seis meses en recobrar la normalidad en Durango, principalmente, según Unzueta, como consecuencia de las pesquisas que tuvo que hacer el seguro para determinar las causas del siniestro. Se barajan dos como “posibles”: la intervención de una persona ajena o la oxidación de algún producto.

Por otro lado, la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural ha esgrimido las razones por las que el representante de la Diputación en el consejo del Consorcio de Aguas de Busturialdea votó en contra de presentar un recurso de interpelación a la sentencia del TSJPV que obligaba a esta entidad a subrogar al personal de la empresa Aquarebe, encargada antes de la gestión del agua en la comarca, en dicho Consorcio.

Unzueta ha explicado que existen cinco razones: “la falta de seguridad jurídica” de que prosperase dicho recurso; “no prolongar la incertidumbre” sobre el caso; “no incrementar el coste económico” por la judicialización del asunto, ni por el aumento de la indemnización a los trabajadores; y apostar por una organización “definitiva” del Consorcio de Aguas de Busturialdea en relación a su personal.

Por su parte, EH Bildu, a través de su apoderado Mikel Kormenzana ha criticado la postura de la Diputación de contravenir sus propios informes “técnicos y jurídicos” al no apostar por el recurso. Ha advertido que acatar dicha decisión, sin agotar antes la vía del Tribunal Supremo, supondrá un cambio de doctrina judicial con consecuencias en la administración pública, ya que la subrogación implica el traspaso de personal sin que se abra un proceso público de contratación como defienden las instituciones hasta ahora.

Al hilo de esta y otras decisiones, el juntero de la coalición abertzale ha denunciado que se apueste por un “proceso de privatización” de la gestión del agua que dejó años atrás “3 millones de pérdidas”, cuando desde que este Consorcio es gestionado con recursos humanos propios ha logrado unos beneficios de “1 millón” de euros. El nuevo modelo “ha demostrado”, según él, la “eficacia” de un sistema público integral que incorpora, además, condiciones laborales “dignas”. “¿Qué intereses estaba defendiendo la Diputación?” ha preguntado Kormenzana, al “apoyar” a una empresa que forma parte de un conglomerado empresarial que está siendo investigado por la justicia en el “caso Pokémon”.

En su turno de réplica, Unzueta ha defendido las líneas estratégicas de la Diputación en la que se incluye la defensa de un “único” Consorcio de Aguas en el territorio “siempre y cuando los ayuntamientos y las comarcas así lo quieran”, ha dicho. Ha matizado que “externalizar servicios, no es privatizar” y que la gestión en Busturialdea ha sido “pública”. En relación a las denuncias por supuestas “irregularidades” en la gestión del agua con la adjudicataria, Unzueta ha emplazado a EH Bildu a dirigir sus acusaciones a los tribunales.

Las desavenencias con la coalición abertzale por la gestión del agua en Busturialdea vienen de atrás. Unzueta ha recordado como la Institución foral votó en contra en noviembre de 2015 de una gestión del agua con medios propios para la comarca de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Busturialdea “sin informe técnico, jurídico y económico” que sostuviera la “internalización total” del servicio.